

1991.VII.26

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko uztailaren 26an egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, X. Diharce, P. Charritton, A. Irigoien, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; hala nola J.L. Lizundia idazkariordea, R. Badiola argitarapenen-eragilea eta J.J. Zearreta ekonomi-eragilea, urgazleak.

J.L. Davant, E. Knörr eta Tx. Peillen jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ekaineko batzar-agiria onartu da.

Letra larrien erabileraz

Maiuskulei buruz Euskaltzaindiak hartutako erabakiak direla eta, **HABE/IVAPen** Itzulpen-zerbitzu ofizialeko buru den Eneko Oregi jaunaren gutuna jaso da, zenbait argibide eskatuz. Labur erantzunez:

a) *Autonomia Elkarte*a izen ofiziala denez, maiuskulekin idatziko da. Galde-ra hau c) atalarekin loturik dago. Erakundeen izenei dagokienez, alegia, izen ofizialak letra larriekin idatziko dira, hala nola *Eusko Jaurlaritza* eta *Nafarroako Gobernua*. Izen ofizialak ez badira, letra xenekin: euskal gobernua, Nafarroako jaurlaritza edo gobernu nafarra.

b) *Ararteko* hitza pertsonari dagokion kargu izena da, eta izen propioaren ondoan minuskularekin idatzi behar da, alkate, ministrari, errege, e.a. kasu horretan idatzi ohi diren bezala.

c) Singularra nahiz plurala izan, generikoa bada minuskulaz idaztea gomendatzen da.

d) Hitz elkartuen araurik ez da eman une honetan, ikergai den beste alor bateko arazoa delako. Dagokion batzordea lanean ari da eta bere garaian emango da ondoreen berri. Nola nahi ere, gutunean aipatutako *Legebiltzara* hitz batean eman ohi da gehien bat, eta horrela idazten jarraitzea da elkargo honen gomendioa.

Eguberri baina *Besta Berri*, aipatzen da atal horretan bertan. Hitz-elkarketen arazoa alde batera utziz, bi horietan batak ez du bestea lotzen, *Eguberri* tradizio oso zaharrean oinarritutakoa baita.

e) Lege-testuetan nahiz bestelako edozein izenetan, hitz elkartuak marra-txoarekin joan ala gabe, izen propioak badira maiuskulekin joango dira, hala nola *Langile-Batzordeak* (Erdarazko CC.OO. esateko), *Lege-Dekretua*, e.a.; bestela minuskulekin: *kultura-batzordea*, generikoa baita.

Euskara Batuko batzordea

Zuzendaritzan ikusitakoaren arabera, Euskara Batuko batzordearen lana aurre-ara eramateko prozedura finkatu beharraren kezka agertu du euskaltzainburuak. Erabakigaiak sailkatu eta plangintza baten barnean hemendik bi urtera egitekoa den kongresurako prestatzen joatea da asmoa. Urgazleen eskaria ere hor dago eta harremanak bideratu behar dira.

P. Salaburuk erantzun dio, badagoela hasieran egindako plangintza bat, idazkera, morfologia, ebakera eta hiztegi-gintza kontutan hartzen dituena. Une honetan errazena diren puntuetatik abiatu badira ere, zailtasun gehiagoko arazoak badituztela aurrean eta gaien zerrenda irekia dela, sor daitezkeen beste batzuk gehitzeko. Batzordeak proposaturiko erabakigaiak eta bakoitzak leharzkeenak maila berean eztabaidatu behar diren, galdetu dute gero. Orain arte lanean ari diren batzordeetan kanpokoek ez dutela parterik hartzen, eta zergatik hemen bai, izan da beste kezka bat.

A. Irigoienek dio berari iritzia eskatu izan zaiola, eta batzordeak itxiak izatea ez dela ona. Jardunaldiak, bestalde, irekitasun osoz egiten dira eta ohar guziak jasota aurkeztu ohi dira erabakigaiak.

Euskara Batuko batzordearen egitasmoak azalduz gutun bat irakurri zela bere egunean, dio P. Altunak, eta erantzun zitzaiola batzarrean. Euskaltzainburuak orain atzera egin duelako beldurra agertzera eman du.

J.M. Satrustegik erantzun dio, atzera ez baina aurrerapausu bat ematea dela euskaltzainburuak proposaturiko prozedura zehaztea.

Gaia bideratuz, hiru dira prozedurari buruz onartutako abiapuntuak:

a) Hileroko batzarretan onartutako araei dagokienez, gomendioak direla esan da, jardunaldietan ikusi eta gero Euskaltzaindiak erabakiko dituenak.

b) Besteren partaidetza lanaren gehiegizko luzapenik gabe ikusteko bidea, honela mugatuko da: Hileroko batzarrean aurkeztuko da batzordearen proposamena eta berehala banatuko zaie joan ez diren euskaltzainei eta interesatu diren urgazleei. Hurrengo hilaren 20a baino lehen igortzen ahalko dira bakoitzaren oharrak Bilboko egoitzara eta handik helaraziko zaizkie batzordekideei. Horrela hurrengo batzarrean eztabaida daiteke proposatutako gaia. Oharren bat interesgarria gerta baledi, eskubidea du batzordeak egileari dei egiteko eta, hala balegokio, txostena berari eskatzeko.

c) Arantzazuko kongresuaren hogeitabostgarren urteburuko Jardunaldiak izango dira, azken finean, aurrelan guzti honen helburua.

Egungo batzarrean banatu diren bi orriekin hasiko da horrela egiten.

A. Irigoienek, bere aldetik, txosten bat banatu du ekainaren 28an Euskaltzaindiak *arabera/arauera* formei buruz egindako adierazpenaren aurkako arrazoiak azalduz.

Kanpo-izendapena

“Scripta Manent” izeneko kongresua antolatu dute datorren urteko irailerako Frisian hizkuntza ttipituetakoko liburuen sorketa, argitarapen eta zabalkundeaz aritzeko. Bertara joateko gomita jaso da. J.A. Arana Martija eta J.M. Torrealdai izendatu dira.

Burtsa-hiztegia

E. Erkiaga, G. Ansola eta X. Gereño jaunek bidali dituzte burtsa-hiztegiari buruz eskatu zitzaizkien itzulpenak. J.A. Arana Martijak dio, abuztuaren 26an bilduko dela bera hiruekin eta oharrik egin nahi duenak aurretik egin beza. Desberdintasunak bateratu ondoren zerrenda batua ekarriko zaio Euskaltzaindiari azken begiratua emateko.

Eskuartekoak

Zuzendaritzak ohi duenez Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusi berria agurtu du batzarrea hasi aurretik, hil honen 11an J.A. Pradera jaunarekin egin zuen bezala.

Urriari Bilbon egingo diren Nazioarteko Dialektologia Biltzarren aurkezpena egin dela Iruñean UEUaren ekintzen artean, esan du J.M. Satrustegik. Kazetari asko egon zen eta egunkarien mozkinak banatu ditu. Ekainaren 18an egin zela Baionan gogoratu du euskaltzainburuak.

Diruzainak datorren urteko aurrekontua aurkeztu du eta onartua izan da.

A. Garatek gutun baten bidez judaierak euskaran izan duen eragina aztertzea proposatu du 1992ko ospakizunak kontutan izanik.

Urriko batzarrea 21ean izango dela aditzera eman du euskaltzainburuak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

BATZAR OROKORRA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1991.eko uztailaren 26an, arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Charritton, X. Di-

harce, A. Irigoien, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, J. San Martin eta L. Villasante euskaltzainak; J.M. Aranalde, X. Aranburu, J.A. Arkotxa, R. Badiola, X. Kintana, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, M.M. Ruiz Urrestarazu, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak.

Ezin etorria adierazi dute: J.L. Davant, E. Knörr eta Tx. Peillen euskaltzainek.

Goizeko bilkuraren berri eman du J.M. Satrustegi idazkariak, gairik azpimaragarrienak hauek izanik: HAEE/IVAPeko itzulpen zerbitzu ofizialeko buruaren eskariz letra larrien erabileraz zenbait puntu hobeki zehaztu dira; Euskara Batuko batzordearen lan prozedura finkatu da; burtsa-hiztegiak izendaturiko batzordeñoaren lana ezagutu da; Frisian, 1992an egingo den hizkuntza ttipuetako liburgintzari buruzko nazioarteko konferentziarako ordezkari Jose Antonio Arana Martija eta Juan Mari Torrealdei izendatu dira; egoitza berriaren horniketak enkantearen albisteak eman da; 1992ko aurrekontuen egitasmoa aurkeztu eta onartu da.

Dagozkien batzordeen sailean, Nazioarteko Dialektologia Biltzarraren prentsaurreko eta aurkezpena Iruñeko Udako Euskal Unibertsitatean, joan den asteazkenean, emandakoaren berri eman du J.M. Satrustegi idazkari eta Nafarroako ordezkari denak. Lehenago Baionan egindakoa ere aipatu da, bide batez.

“Erdi Aroko etxe-izenak Elgetan” izeneko txostena irakurtzen du J. San Martin euskaltzainak. Hirurogeitamabi orritako txosten mardularen zertzeladarik aipagarrienak azaltzen edo irakurtzen ditu. Atzizkien zerrenda, 1373an hasi eta etxe-izenen dokumentu iturriak urtez urteko aipamenekin, aldakuntzen erakusgarriak, bibliografia eta “Repertorio de casas de Elgueta” deritzan eranskina izeneko sailetan bana daiteke txostena. Bestalde, udalbarruti barnean 1928rarte zeuden Angiozak eta Ubera ere aintzakotzat hartzen ditu, oraingo Elgeta murriztuaz gain. Lanean etxe bakoitzak agiri edo lekukotasun desberdinetan izan dituen aldakuntzak ere agertzen dira.

Jarraian bilduen artetik galdera eta iritzi ugariri erantzun zehatzak ematen ahalegindu da txostengilea, eztabaida akademiko aberasgarri bat sortzen delarik.

Eta besterik gabe, oporraldi on batzuk opatuz, amaitutzat ematen du bilkura euskaltzainburuak.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

Jose M. Satrustegi
idazkaria